

A gripeari buruzko irakaspenak

2009ko pandemian gripeagatik ospitaleratutako haurren ezaugarri klinikoak eta epidemiologikoak aztertu ditu Eider Oñate pediatriak

2009 A gripearen urtea izan zen. Influenza A birusaren H1N1 azpimotaren mutazio batek zerrietatik gizakietara salto egin zuen lehenik eta gizakiz gizaki hedatu zen, mundu guztian zabaldu arte. Ekainean, Munduko Osasun Erakundeak pandemia dekrertatu zuen. Pandemia hitzak gaitzaren larritasunari baino eremu geografikoari egiten dio erreferentzia. 1968tik lehen a zen pandemia hau izan du abiapuntu Eider Oñate pediatriak bere tesia idazteko. Bertan, osasun zerbitzuetan eta populazioan halako egoera batek duen eragina aztertu du.

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitatean egiten du lan Oñatek eta H1N1 birusaren mutazio hark Gipuzkako haurrei nola eragin zien ikertu

du bereziki. "Osasun-agintarien alarma, aurrekontu teorikoek justifikatzen zuten, baina, zorionez, pandemia ez zen espero bezain larria izan", gogoratzen du pediatriak. Ikerketak berretsi du haurretan (hasiera batean, arriskutaldeetako bat) gripearen azpimotaren honen eragina urte-sasoiko gripearen antzekoa zela.

Horrez gain, azterketak azaldu du, pandemiaren aurreko eta ondorengo datuak konparatuz, larrialdi-zerbitzuetako kontsulta-kopurua eta ospitaleratzeak asko igo zirela. "Alarma sozialak mediku pediatrien ohiko jardun klinikoak aldatu zuen", onartu du Oñatek. Adibidez, A gripea zuen haur asmatico bat tratatzean beste modu batera jarduten zen, jardun klinikoan hainbeste oinarritu gabe, eta errazago

ospitaleratzten zen garai hartan normalean etxera bidaltzen zena.

Hala ere, pediatriaren ustez, barkaezina izango litzateke hartu ziren neurriak hartu ez eta, ondorioz, saihesten zitezkeen biktima asko eragin izan balira. Izan ere, gehitu du Oñatek, "inork ez daki noiz gertatuko den berriro hurrengo pandemia, eta 1918koa bezain birulentoa den beste bat gerta daiteke edozein unetan". Zorionez, 2009 ez zen momentua, baina krisi hark balio izan du irakaspenak ateratzeko. H1N1 A gripearen birusagatik XXI. mendean sortutako lehen pandemiaren ondorioz izandako esperientzia, baliagarria izango da hurrengo urteetan estrategia diagnostiko-terapeutiko berriak ezartzeko. ●



Normalean etxera bidaltzen diren kasuetan ospitaleratu egin ziren gaixoak pandemia-garaian. ARG.: CHRISTIAN HARBERTS, 123RF.COM.